

IL AZALPEN PROBA • <i>Pasio krimena</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Udazken ohe bigun baten gainean zegoen etzanda, eskumuturrak eta orkatilak lotuta, ahoa estalita. Egokitu zizaion *koreografia* berri hura gozoa ez bazen ere, bere burua kontrolatzen ahalegindu zen dantzaria, egiten zekiena egiten zuenean bezala. Dantzan, alegia. Azken batean, bazituen aldeko karta ezkutu batzuk.

Hasteko, neska, baxua eta itxuraz fina izatea:jendeak ahul gisa hartzen zuen berehala.

Jarraitzeko, matraila karratuko gizonaren begiak zeuden. Jabi, oker entzun ez bazuen hormaren beste aldetik. Bere begiak estaltzen saiatu bazen ere, gizonak ez zuen guztiz lortu. Burua pixka bat jaitsiz gero, moldatzeko lain ikusi zezakeen Udazkenek. Antzemandakoak antzemandak, neskak ez zuen jada dudarik gizon hura, Jabi, gogorra eta bortitza zela... egoera jakin batzuetan. Dudarik ez zuen bezala berak oso bestelako egoera suposatzen zuela harentzat. Gizon gogorrek erraz egingo zuen borrokan beste gizon batekin eta aurrez aurre. Baina gizon gogorrek bihotz samurra erakutsi zion begiradaz. Berarekin behintzat.

Hura aprobetxatu behar zuen, zakutik edo zorrotik.

Ze besteari, buru-luzea eta ahots fina zuenari, hostasun axolagabea besterik ez zion igarri.

IL AZALPEN PROBA • <i>Pasio krimena</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Udazken artilezko txaketa zuri-beltz luze batez estalita sartu zen Ficoban. Besoak zabaldu zituenean, Xoelek eta besteek estutasun handiz ikusi zuten azpian zeraman niki gorritua. Odol-gorriaz.

Junek ahoa estali zuen:

—Udazken! Ondo al zaude?

Dantzaria hurbildu egin zitzaion. Keinu labur batez lasaitzeko adierazi zien.

—Odol gehiena ez da nirea. Ez kezkatu.

—Ez kezkatzeko? –erdi-oihukatu zion Arnauk. Arreba besarkatu zuen, behin, birritan—. Eseri hor! June, non daude gazak, edo kotoia, edo garbitzeko zerbait?

Junek armairu gorri txiki bat seinalatu zion. Gero ahizparengana jo zuen ingeniariak:

—Zer egin dizute, udazken? Orain bai, poliziari deituko diot.

Udazkenek begiak itxi zituen. Amasa hartu zuen, oso sakon. Ondoren kolpe batez hustu zituen birrikak.

—Ez deitu inori! –eskatu zion dantzariak ahizpari—. Ez aitarekin zer gertatzen den argitu arte behintzat.

—Baina, orduan...

—Norbaitek segada bat jarri badio, onena itxarotea izango da, aita akusatzeko arriskua igaro arte behintzat.

IL AZALPEN PROBA • <i>Pasio krimena</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ainitze eta Arnau lurrean zeuden, loturik eta elkarren ondoan.

Azken minutuak zeharo nahasiak izan ziren fisikari teorikoarentzat, batere gozoak ez. Erdi-arrastaka atera zituzten unibertstatetik, alboko ate diskretu batetik. Furgoneta batean sartu, kutxa moduko handi baten barruan, eta beste norabait eraman zituzten.

Orain leihorik gabeko gela txiki batean zeuden, argi-ilunean. Ahoa estalita, ezin hitz egin, ikusi apenas, entzun bai. Trumoiak aditzen ziren kanpoan. Gero eta gehiago. Gero eta indartsuagoak.

Ainitzek Arnauaren esku bateko mugimendua antzematen zuen, tipi-tapa, tipi-tapa. Mutilak bere barruko erritmoren bati jarraitzen zion, tarteka marmari leunean abesten, tarteka buruarekin segituz. Bizkarrean ere aritu zitzaion apur batez, hatzezko akupuntura moduko bat osatuz. Arnauk ezin zuen, nonbait, musika barrutik kendu.

Sebastian eta Txiki sartu ziren gelan. Argia piztu zuten.

—Trumoi hotsak lagundu egingo gaitu –esan zien Sebastianek—. Zuen oihuak estaltzen. Hala ere, Txiki, piztu irratia eta jarri bolumena topera.

Gizon handia bi kablerekin itzulí zen, gorria bata, beltza bestea.